



## HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

**Data:** 2023-01-11 **Bilera zenbakia:** 30

**Bilera ordua eta lekua:** 19:00etan kulturgunean

**Parte-hartzaileak:** Monica ( guraso elkarte), Mari eta Rosario (jubilatua), Iñigo (Arbelaitz) Iker eta Nagore (zinegotziak), Nerea (teknikaria)

## LANDUTAKO GAI ORDENA

### 1. Azken batzordeko etxeko lanak.

- ✓ Aurrekontuak, elkarteetan galdetu ea zerbait ikusten den herrian hobetzekoa edo hau kontuan izateko.  
Beko kaleko argiteria eta Zapatariko oinezko bidea konpondu beharra atera dira, hirigintzako gaiak dira baino bideratuko dira.
- ✓ Elkarrekin hitzarmenak egiteko bilera data eguna proposatu Nereari.  
Egin dira eta sinatzeko daude.
- ✓ VITOGRAMA edo FRONTONA aplikazioak bai edo ez, komentatu elkarteetan.  
Guraso elkarteetan komentatu dute Itsasklik ondo jartzea egokiagoa litzatekeela beste ezer berria jartzerako.
- ✓ Elkarrekin bakoitzak urtean zehar egingo dituen ekintzen egutegia pasa Nereari  
Guraso elkarteetakoak pasa dute, besteek ohiko ekintzak egingo dituzte.
- ✓ Eskola berriak eragingo dituen espazioen berrantolaketan herritarren iritzia/  
proposamenak galdetu.  
Ez dugu puntu hau aipatu.
- ✓ Kulturako galdetegiak betetzeko jendeari komentatu.  
Ez da komentatu, jende gutxi bete baitu.
- ✓ Herri eguna guztion artean antolatzea bai edo ez?  
Guraso elkarteetakoek komentatu dute, egunak duen izaeraren arabera esku bat botatzeko prest egongo liratekeela baino haurrentzat zerbait egoten bada.  
Komentatu dugu egunaren diseinua gure esku dagoela, hurrengo herri bizitza batzordearen ondoren egingo dugu bilera irekia.

## **2. Ekintzen balorazio laburra**

Olentzero eta Mari Domingi: Balorazio orokorra ez dute egin baino itxuran atera zen, jende ugari bildu zen eta giro ona egon zen.

Gabonetako ekintzak: Hezitzaileek ez ditu balorazioak osatu baino esandakoaren arabera nahiko ongi atera dira ekintzak.

Abenduak 26: Aurpegi margoketa eta jolasak: Azken momentuan nerabe antolatzaileek huts egin zuten.

Abenduak 28: Buztin txuri tailerra: Ezarritako adinez txikiagoak ziren haurrak etorri ziren.

Abenduak 30: Gaztelekuan afari merienda

## **3. Hurrengo ekintzak herrian**

Urtarrilak 20: Talo ikastaroa

Urtarrilak 28: Talo jana

## **4. Besteak**

- Jubilatuetako armarioa, beste komunean jarri daiteke.
- Medikua falta dela aipatu dute jubilatuek, egoera hau argitzeko harremanetan jarriko gara osakidetzarekin.
- Irakurzaletasuna bultzatzeko altzariak.
- Hileko kultur agenda, ekintzarik bada bidali. Hilaren hasieran bidaliko dira hileko agendak.
- EH Bilduren batzordeak.  
Hirigintzako gaiak: U.23, astelehena, 18:00 kulturgunean  
Herri bizitzako gaiak: U.25, asteazkena, 18:00  
Ongizate: U. 27, ostirala, 18:30  
Etxebizitza eta energia: U.28, 11:00 (ondoren mokadua)
- Hitzar- energi komunitateak ere bilkura egingo du otsailean, zabalduko da deialdia.
- Hurrengo batzordea otsailaren 8an beharrean 15ean egingo dugu.

<b>ETXEKO LANAK</b>	<b>NORK</b>	<b>NOIZKO</b>
<i>Argiteria arazoa eta zapatariko konponketak bideratu</i>	<i>Nereak</i>	<i>urtarrila</i>
<i>Jubilatutako armarioa</i>	<i>Nereak</i>	<i>urtarrila</i>
<i>Agendan txertatzeko ekintzak badaude esan</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Otsaila hasieran baino lehen</i>
<i>Batzordeen berri eman taldeetan</i>	<i>Guztiok</i>	<i>urtarrila</i>
<i>Talo janean izena emateko esan taldeetan</i>	<i>Guztiok</i>	<i>urtarrila</i>
<i>Medikuaren gaia argitu</i>	<i>Nagore</i>	<i>urtarrila</i>
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<b>Hurrengo bilera: Otsailak 15, asteazkena 18:30etan HERRI BIZITZA BATZORDEA 19:00etan HERRI EGUNA ANTOLATZEKO BILERA</b>		